BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

4224

18/2012 DEKRETUA, irailaren 10ekoa, lehendakariarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide bat izendatzeko dena.

Ekainaren 27ko 9/1997 Legeak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea arautu zuen. Lege horren 5. artikuluaren arabera, batzordeko kideak izendatzea lehendakariaren eskumena da, gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko erakundeak beren ordezkariak aukeratu ondoren. Bestalde, lege horren 7. artikuluaren arabera, Kontseiluko kideen agintaldia lau urterako izango da; baina, hala ere, berriro ere aukeratu ahal izango dira.

Dena dela, batzordean ordezkari diren erakunde, korporazio edo entitateek titular edo ordezko izendatu dituzten pertsonak aldatzeko aukera dute; eta izendatu berria kargu horretan arituko da ordezkatutako pertsonak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bete beharreko lau urteko epea igaro arte.

Aipatutako legearen 5. artikuluan 7.az ezarritakoa betetzeko, gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko erakundeek hauxe aukeratu dute.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Mikel Ruiz Martínez jauna Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide izendatzea, gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko erakundeek aukeratu ondoren, eta Gonzalo Rodríguez Aguirregoitia jauna ordezko kide izendatzea.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko irailaren 10ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.